



**Aizu, guraso:**

**kontatzen al dizkiezu ipuinak zure seme-alabei?**

**Ohera joateko unean bakarrik?**

**Zerorrek asmatzen al dituzu ipuinak?**

**Zer nolako liburuak erabiltzen dituzu?**

**Kontatzeko zerbait berezirik erabiltzen al duzu?**

**Nola girotzen dituzu ipuinak? Kontatu egiten duzu gehienbat, edota irakurri? Nola?**

Horrelako gaiekin interesaturik baldin bazaude, eta ipuinek zerbaiteko balio dutela sinistuta (esaterako: zure seme-alabekiko harreman afektiboa, harreman komunikatiboa, irakurzaletasuna... garatzeko), bada, jakin ezazu IKASTARO bat antolatu dugula.

Beraz, balia ezazu eskaintzen dizugun aukera, eta anima zaitetz!

## IPUIN TAILERRA

**Norentzat:** 0-7 urte bitarte dituzten haurren gurasoentzat, batik bat. Baina baita interesa duen edonorentzat ere: irakasle, hezitzaile, begirale...

### Egitaraua

- 1.- Kontaketaren garrantzia gaur egun.
- 2.-Ipuinak nola aukeratu kontatzeko
- 3.- Kontatzeko lau modu aztertu:
  - Irakurketa, ahots gora.
  - Kontaketa, irudiez baliatuta.
  - Kontaketa, irudiez baliatu gabe.
  - Kontaketa dramatizatua
- 4.- Ipuinak kontatzeko baliabideak:
  - Kontatzeko gunea: espazioa eta denbora.
  - Gorputza: ahotsa, keinuak, imintzioak, begirada...
  - Ahozko hizkuntzaren estilistika: elipsia, denbora, hika/zuka, estilo zuzena/zeharkakoa, onomatopeiak...
  - Girogarriak: erritoak.
  - Inprobisazioa.
  - Isiltasunaren erritmoa.
- 5.- Kontalariaren jarrera: konfiantza, gardentasuna, entzumena....

**Norentzat:** 0-7 urte bitarte dituzten haurren gurasoentzat, batik bat. Baina baita interesa duen edonorentzat ere: irakasle, hezitzaile, begirale...

**Non:** Ernest Lluch-eko kultur etxean

**Datak:** Otsailak 25, martxoak 4, 11, 18

**Ordutegia:** 17:30etatik 19:30etara

**Partaideen kopurua:** gehienez 25

**Hizkuntza:** euskaraz

**Emaila:** Pello Añorga (Idazlea, Ipuin-kontalaria eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZIKO irakaslea).

